

# ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA 2030

2024ko maiatza



# AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	3
2. ARAUDI MARKOA .....	4
3. BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN BALORAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA .....	7
3.1 Ekintzen betetze-maila .....	7
3.2 Egungo egoeraren diagnostikoaren 10 gako.....	9
3.3 Plan berrirako identifikatutako erronkak .....	10
4. ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA 2030.....	11
4.1 Plana diseinatzeko parte hartze prozesua .....	11
4.2 Egitura eta helburuak .....	12
4.3 Printzipio gidariak, bermeak eta baliabide ekonomikoak .....	17
4.4 Kudeaketa-sistema.....	20
4.5 Komunikazioa.....	30
4.6 Ekintza-plana, arduradunak eta kronograma.....	31


## 1. SARRERA

Astigarragako Udalak aspalditik erakutsi du emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko apustua. Horren adierazle dira Astigarragako Udalak jada izan dituen hiru planak (I. Plana, 2010-2013; II. Plana, 2015-2018; III. Plana, 2020-2023). Azkeneko Planak aldaketa nabarmenak ekarri ditu herrian, hala nola, Astigarragako Emakumeon Etxea sortzea edota Berdintasun Sailaren baliabideak egonkortu eta handitzea.

2023ko maiatzetik azaro bitarte *Astigarragako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana* ebaluatu du Udalak, eta berdintasun gaiei dagokionez, egungo egoeraren diagnostikoa egin du. Bertatik abiatuta, Emakume eta gizonen berdintasunerako plan berria osatu da, prozesu parte hartzaile baten bidez. Partaidetza prozesuan zehar, diagnostiko fasean elkarrizketatutako eragile, herritar eta udaleko partaideen iritziak kontuan hartu dira, eta berriaz, plana osatu eta kontrastatzeko lau lan-saio egin dira. Lehen hiruak herritarrekin eta mugimendu feministarekin eta azkena udaleko arduradun politiko eta teknikoekin.

Plana diseinatzeko kontuan hartu da EAEko Berdintasunerako Plan Estrategiko berria, 2024an onartua. Dokumentu honi jarraiki, Astigarragako plan berriaren izena **Berdintasunerako Plana 2030** izango da. Izenak dioen moduan, 7 urteko iraupena izatea aurreikusten da.

Planaren diseinu faseak **hiru helburu zehatz** izan ditu, emaitza bezain garrantzitsua baita egiten den bidea:



Dokumentu honetan Planaren diseinu prozesua eta Plana bera jasotzen dira.

Astigarragako emakume eta gizonen berdintasunean aurrera pausoak emateko tresna izatea du xede dokumentuak.

## 2. ARAUDI MARKOAK

Emakume eta gizonen berdintasunaren printzipioa legezko betekizuna da administrazio publiko eta erakunde ororentzat. Araudi marko internazionalen dago jasota 1979az geroztik. Horrez gain, araudi markoa asko garatu da azken urteetan, behean jaso diren erreferentziek dioten moduan.

Ondorioa argia da: **euskal administrazio publikoen betebeharra da kontzienteki emakumeen kontrako diskriminazio mota guztiei aurre egitea eta berdintasuna sustatzea bere jarduera guztien bidez**. Zentzu horretan, administrazioaren arlo eta maila guztien ardura dira berdintasun gaiak.

1979

CEDAW

NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen **emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa** Emakumeen Aurkako Bereizkeria era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioan (CEDAW). Konbentzio hau Espainiar Estatuak berretsi zuen 1983an erabaki lotesle gisa.

1995

NBE,  
Beijing

Nazio Batuen Erakundeak 1995ean Beijingen antolatu zuen Emakumeari buruzko IV. Konferentzian adostu zuen **berdintasuna lortzeko estrategia arlo eta politika guztietan "GENERO IKUSPEGIA" txertatzea** izan behar zuela.

2015

GGH/ODS  
2030

NBEren giza garapenerako 17 helburu estrategikoen artean 5.ak horrela dio: **Genero berdintasuna eta emakume eta neskatilen ahalduak lortzea**.

1999

EBFI/TFUE  
Amsterdam

Europar Batasunaren Ituneko 3.2. artikularekin bat, Batasuneko kide diren estatuetakoko politika eta ekintza guztietan integratu behar da emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatu eta horien berdintasuna sustatzeko helburua.

2007

LOI  
3/2007

Espainiar Estatuko emakume eta gizonen berdintasunerako Lege Organikoan ezartzen dira **berdintasun errealera iristeko betebeharrak**, administrazioarenak eta norbanakoenak.

2011

Istanbulgo  
Hitzarmena


Nazioarteko giza eskubideei buruzko hitzarmena, **emakumeen eta etxeko indarkeriaren kontrako**, Espainiarentzat 2014tik loteslea dena.

1/2023,  
Berdintasunerako  
Euskal Legea

**1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.**

## ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA 2030


**1/2023, Berdintasunerako Euskal Legeak** zehazten du, besteak beste nolakoak izan behar diren berdintasun politikak garatzeko zereginak eta eskumenak. 7. artikuluan jasotzen dira udalen zereginak, eta 16. artikuluan Berdintasun Planen gutxienerako edukiak.



Eduki hauek kontuan hartuta garatu da Astigarragako Berdintasunerako Plana 2030 dokumentua.

Horrez gain, aipatzekoa da Euskal Administrazio publikoen berdintasun politikak gidatzea helburu duen Plan estrategikoa 2030 dokumentuan oinarritzen dela Plana, Astigarragako errealitatera egokituz, noski.

**EAEko Berdintasunerako Plan Estrategikoak 4 ardatz ditu:**



### Azken urteetako arau marko eta programen berrikuntzak

Berdintasunerako Lege bateratzeak eta EAEko Berdintasunerako Plan estrategiko berriak hainbat berrikuntza ekarri ditu Berdintasun politiketan.

Batetik, berdintasunerako politiken printzipioak zabaldu izana. Horrek esan nahi du, egun Berdintasun politikak sustatzean **16 printzipio hartu beharko direla kontuan**.

**16 printzipio gidariak**



<b>01.</b> Tratu-berdintasuna	<b>11.</b> Lankidetzak, koordinazioa eta internazionalizazioa
<b>02.</b> Aukera-berdintasuna	<b>12.</b> Emakumeen ahalduntzea
<b>03.</b> Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea	<b>13.</b> Gizonen inplikazioa
<b>04.</b> Aniztasuna eta desberdintasuna errespetatzea	<b>14.</b> Parte-hartzea
<b>05.</b> Genero-ikuspegia txertatzea	<b>15.</b> Berrikuntza, gardentasuna eta kontuak ematea
<b>06.</b> Ekintza positiboa	<b>16.</b> Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea
<b>07.</b> Generoaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea	
<b>08.</b> Ikuspegi intersektionala txertatzea	
<b>09.</b> Sexu- edo genero-identitatearen, sexu-orientazioaren, gorputz-autonomiaren eta autodeterminazioaren garapen askea	
<b>10.</b> Ordezkaritza orekatua	

Printzipio asko 2005eko Berdintasun Legean jasota zeuden arren, berri ugari sartu dira. Astigarragako Berdintasun Politiketan guztiak kontuan hartuko badira ere, aipatzekoak dira honako hauek, dakartzaten berrikuntzagatik:


- **Ikuspegi intersektionala kontuan hartzea**
- **Sexu edo/eta genero identitateak eta orientazioa libre garatzeko eskubidea**
- **Gizonen inplikazioa**
- **Hizkuntza eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea**

Horrez gain, **Europar Batasunaren genero-berdintasunerako estrategiak (2020-2025)** ekarri zituen berrikuntzak kontuan hartuz, hainbat gai berri txertatu direla gaur egungo berdintasun politiken estrategia berrian.

Gai hauen artean dago larrialdi klimatikoaren politikak genero ikuspegitik lantzeko beharra,

STEAM zientzia eta teknologia arloetan emakumeen presentzia handitzeko apustua, edota generoagatiko soldata-arrakalaren aurkako neurri zehatzak jartzeari buruzkoak.

**Arau marko eta estrategia hauetan guztietan oinarritzeaz gain, Astigarragako Berdintasunerako Plana 2030 diseinatzeko ezinbestekoa izan da aurrez egindako lanaren ebaluazioa, egoeraren diagnostikoa eta prozesu parte hartzailea.**




### 3. BERDINTASUNERAKO III. PLANAREN BALORAZIOA eta EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOAREN LABURPENA<sup>1</sup>

#### 3.1 Ekintzen betetze-maila

- 2020-2023ko iraunaldia izan duen *Astigarragako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planak* lau ardatz zituen, EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako VII. Planak jasotzen zituen moduan (ikus ardatzen definizioak Berdintasunerako III. Planean).
- Berdintasunerako Planaren betetze-maila % 41ekoa izan da. Hutsune nabarmenena udal barrura begirako ekimenetan egon da. Izan ere, lau urte gora-beheratsu izan ziren: COVID-19 egoera, Berdintasun teknikaririk eza, udal-langileen artean aldaketa handiak estabilizazio prozesuak direla eta, eta abar luze bat,
- Hala ere, Planak zituen 101 ekintzetatik aurrera atera diren 41 horien bidez, Berdintasun Politikak herri mailan egonkortzeko oinarriak jartzeko balio izan du Planak: **Berdintasun Saila egonkortu** eta **teknikaria finkatu da, baita lan-jarduna bikoiztu** ere; **Emakumeon Etxea** ireki eta **dinamizatzaile bat** bermatu da; Berdintasun Politiken **aurrekontua igo** da eta **Berdintasunerako mahai txikia** sortu da. Horrez gain, diagnostikoak egin eta **ikerketa bekak argitaratu dira berdintasun gaien ingurukoak**.


PLANAREN BETETZE MAILA ARDAZKA



ARDAZKA	Ardatzaren Betetze- maila
Gobernu ona	% 25
Emakumeen ahalduntzea	% 65
Gizarte-antolamendu berdinzalea	% 27
Indarkeria matxistarik gabeko herria	% 53

<sup>1</sup> Ikusi “Astigarragako III. Planaren ebaluazioa eta egungo egoeraren diagnostikoa” txosten osoa web orrian.

Taula honetan jaso dira garatu diren ekintza esanguratsuenak, taularen ezker aldean; bestetik, eskuinaldean egin gabe geratu diren ekintza esanguratsuenak ikus daitezke.


 <b>EGIN DIREN EKINTZA ESANGURATSUENAK</b>	<b>EGIN EZ DIREN EKINTZA ESANGURATSUENAK</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>- <i>Berdintasunerako mahai txikia sortzea.</i></li><li>- <i>Emakumeen Etxea sortzea, 200 bazkiderekin eta dinamizatzailearekin.</i></li><li>- <i>Berdintasun saila egonkortzea.</i></li><li>- <i>Dirulaguntzen oinarrietan balorazio irizpideetan berdintasuna % 10ekin baloratzea.</i></li><li>- <i>Zaintzaren inguruko diagnostikoak egitea.</i></li><li>- <i>Emakume erreferenteei buruzko bekak argitaratzea, merkataritzan emakumeek duten papera aztertzea.</i></li><li>- <i>Bi kaleri emakumeen izena jarri eta hirigintzarekin lanketak egitea</i></li><li>- <i>Indarkeria matxista kasuen kudeaketarako udal protokoloa egitea.</i></li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- <i>Indarkeria matxista kasuen jarraipenik eta protokoloan ezarrita zeuden trebakuntza eta sentsibilizazio jarduerak ez dira egin.</i></li><li>- <i>Ez da udal barruan berdintasun politikak koordinatzeko egitura iraunkorrik sortu ezta bildu ere. Mainstreaming-estrategia ez da landu.</i></li><li>- <i>Ez da trebakuntzarik egin berdintasun gaietan ez teknikariek ez politikariek.</i></li><li>- <i>Diskriminazio anizkoitza pairatzen duten emakumeen egoerak aztertzeke lanketarik ez da egin.</i></li><li>- <i>Emakumeen langabezia murriztu eta enplegu duinak sustatzeko ekimenik ia ez da egin.</i></li><li>- <i>Hezkidetza modu integralean lantzeko aukerarik ez da egon.</i></li></ul>



### 3.2 Egungo egoeraren diagnostikoaren 10 gako (Diagnostiko osoa udalaren web orrian)

1. Astigarragako **populazioa bikoiztu** egin da 15 urtetan (2007an 4.332 biztanle / 2022an, 7.288 biztanle).
2. Jaiotze-tasa Gipuzkoakoren bikoitza da Astigarragan, hau da, **ume asko eta familia gazte asko** daude (Gipuzkoa: 6,28 / Astigarraga: 12,83).
3. Herria azkar handitu eta gaztetu arren, **balibide publikoak ez dira neurri berdinean hazi**: Bigarren Hezkuntzaren falta, ginekologo falta, garraio publiko falta... zerbitzu publikoen gabezia dago herriaren egitura demografiko berria kontuan hartuta. Zerbitzu publikoen gabeziak emakumeen zaintza ardurak handitu ohi ditu.
4. Herriko kezka nagusien artean dago espazio publikoaren erabilera, Sagardotegi garaiei eta eguneko parranda giroari lotua. Gai honek **lotura zuzena du emakumeek (baina baita adin txikikoek edo pertsona helduek) espazio publikoan modu seguruan ibiltzeko aukerekin**.
5. Lanaren gaineko errentari erreparatuta, **emakumeek gizonek baino % 31 gutxiago kobratzen dute urtero** bataz beste (gizonek 20.252 € urtean / emakumeek 13.920 € urtero).
6. Astigarragan, emakumeen langabezia gizonen **langabeziaren bikoitza** da (gizonena % 4,9koa / emakumezkoena % 8,9koa).
7. **Indarkeria matxistari** dagokionez, 2021 urtean 10 kasu identifikatu ziren herrian. Emakunderen arabera, biktimizazio tasa (salaketa kopurua biztanleria kopuruarekin alderatua) 28,8koa da Astigarragan. Euskadi mailan 54,53koa da. Datu horren ondorioetako bat da, Astigarragan, **kasuen detekzioan eta lehen arreta emateko orduan, hobetzeko asko** dagoela.
8. Udal barrura begira, Udal Gobernuaren **ordezkaritza orekatua** da guztiz, 4 emakume eta 4 gizonekin. Hala ere, badira oraindik zenbait batzorde politiko parekideak ez direnak.
9. Administrazioari dagokionez, **udal administrazio barruan** emakume eta gizonen berdintasuna lantzeko **koordinazio egiturarik edo trebakuntzarik ez dago**, oraingoz.
10. Mugimendu feministari dagokionez, historikoki emakume elkarte indartsu bat egon da herrian, Harituz elkarte. Azken urteotan, Greba Feministen kontestuan, Astifemiak, Gazte Asanbladako neska eta beste hainbat emakume feministek herrian eragina izan dute. Ondorioetako bat izan da **Astigarragako Emakumeon Etxea, egun 200 bazkide** baino gehiago dituen.

### 3.3 Plan berrirako identifikatutako erronkak



4. ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERTINTASUNERAKO PLANA 2030

4.1 Plana diseinatzeko parte hartze prozesua

Astigarragako emakume eta gizonen berdintasunerako 2030 Plana diseinatzeko prozesu parte hartzaile bat egin da. Oinarrian, ebaluazio eta diagnostiko fasean herritarrekin, udal teknikari eta politikariek izandako hartu emanak izan dira diseinu fasea egin ahal izateko informazio iturri nagusiak.

Horrela, Plana diseinatzeko ezinbestekoa izan da **Talde Eragile bat sortzea** Berdintasun zinegotzia, teknikaria eta Elhuyarreko aholkulariaren artean. Talde Eragile horren funtzio nagusia izan da prozesua bideratzea, koordinatzea eta ebaluatzea.

Horrez gain, **lau lan-saio** egin dira, lehen hiruak herritarrekin eta azkena udal ordezkari politiko eta teknikoekin. Azpiko irudian jasotzen dira lau saioak: Ahalduntzeari buruzkoa, Gizartea eta hezkidetzaz, Zaintzen duen herria eta Gobernu onari buruzkoa.



Lan saioetan, III. Planaren ebaluazioaren eta egoeraren diagnostikoaren berri eman da, eta aurrera begira EAEko Berdintasunerako Plan estrategikoa 2030 dokumentuan proposatzen diren lau ardatzen baitan Astigarragako erronkak nola kokatu eta programatu daitezkeen aztertu da.

Oro har, bi orduren bueltako bilerak izan dira, udal barrukoa izan ezik, luzeagoa izatea aurreikusitako baitzen, Planaren kudeaketaz aritzeko tartea hartu zelako.

	HERRITARRAK	TEKNIKARIAK	ORDEZKARI POLITIKOAK
EMAKUMEAK	13	7	4
GIZONAK	1	3	4
<b>GUZTIRA</b>	<b>14</b>	<b>10</b>	<b>8</b>

## 4.2 Egitura eta helburuak

EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako 2030 Planean ezartzen diren 4 lan-ardatzetan oinarrituta egituratzen da Astigarragaren Berdintasun Plan berria.

<p><b>GOBERNU ONA</b></p>	<p>Gobernu sistema on batek, batetik, emakume eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoa izatea esan nahi du. Bestetik, gobernu-sisteman, hau da kudeaketan genero ikuspegia jarduera guztietan txertatzea esan nahi du. Azkenik, udalaren jarrera berdinzalea izan behar dela esan nahi du, bai bere langileekiko harremanean, bai eta herritarrekiko harremanetan ere, gardentasuna eta parte hartzea bermatuz.</p> <p>3 helburu estrategiko 12 helburu zehatz 35 ekintza</p>
<p><b>EMAKUMEEN AHALDUNTZEA</b></p>	<p>Emakumeen ahalduntzea bultzatzeko estrategiak, emakumeen genero-kontzientzia, eskubideen ezagutza, autonomia sozial eta ekonomikoa sustatzean datza. Horrez gain, emakumeen antolaketa soziala eta feminista indartzeko bideak bultzatuko dira. Guzti horri gehitu beharko zaio emakumeen aniztasuna kontuan hartu beharra, baldintza oso ezberdinetako kolektiboak baitaude emakumeen artean, eta arreta jarri beharko da egoera zaurgarrietan dauden emakumeengana iristeko.</p> <p>3 helburu estrategiko 7 helburu zehatz 24 ekintza</p>
<p><b>GIZARTE ANTOLAKETA BERDINZALE ETA JASANGARRIA</b></p>	<p>Bizitza jasangarriagoak, berdinzaleagoak izateko gizarteko esparru guztietan egin beharko da lan. Horregatik, ardatz honetan gizarteko arlo ugari jasotzen dira. Zaintza beharrak, hezkidetzak, espazio publikoaren erabilera, gizonen inplikazioa, genero rol eta estereotipoak deseraikitzea, udaletik bultzatutako hainbat politiketan berdintasuna sustatu eta bereizkeriak ikusarazteko ekimenak bateratzen dira besteak beste.</p> <p>3 helburu estrategiko 9 helburu zehatz 25 ekintza</p>
<p><b>INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA</b></p>	<p>Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat da, eta egungo gizartean osasun publikoko arazo. Indarkeria horren jatorria historikoki emakumeek bizi izan dituzten diskriminazioen ondorioa da. Horregatik, irtenbidea gizarte berdinzale bat sustatzea da. Bitartean, lan-ardatz honen bidez, prebentzioa, kasuen detekzioa, arreta ematea eta koordinazioan hobetzea da helburua.</p> <p>3 helburu estrategiko 8 helburu zehatz 13 ekintza</p>

## ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA 2030

Lan-ardatz bakoitzean jasotzen diren helburu estrategikoak eta zehatzak jasotzen dira ondorengo tauletan, baita ekintza kopurua ere. Guztira 97 ekintza ditu Planak eta 2030 urte bitartean garatuko da.

### 1. GOBERNU ONA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	Ekintza kopurua
EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISO POLITIKOA	G.O.1. Berdintasunerako plangintza garatzea, segimendua egitea eta ebaluatzea.	5
	G.O.2. Berdintasun politikak garatzeko baldintzak bermatzea.	2
ADMINISTRAZIOAREN JARDUERAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA	G.O.3. Berdintasun-politikak garatzeko kudeaketa, planifikazioa eta koordinazioa hobetzea.	3
	G.O.4. Astigarragako Udala osatzen duten pertsonak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezifikoa eskainiz.	5
	G.O.5. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	4
	G.O.6. Komunikazioan berdintasun-ikuspegia txertatzea.	2
	G.O.7. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasuneko klausulak txertatzea.	2
	G.O.8. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.	4
	G.O.9. Udal-organo nahiz gainontzeko erabaki guneetan ordezkari eta partaidetza orekatua bultzatzea.	1

## ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA 2030

<b>UDALAREN GOBERNANTZA EREDU BERDINZALEA</b>	G.O.10. Udal barruko antolamendua berdinzalea izateko pausoak ematea.	2
	G.O.11. Udaleko sailek bere jardueran genero-ikuspegia txertatzea.	2
	G.O.12. Udal Politiketean emakumeek ere parte hartzeko gardentasuna eta parte hartzerako bideak bermatzea	3
		<b>35</b>

### 2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK</b>	<b>HELBURUAK</b>	<b>Ekintza kopurua</b>
<b>EMAKUMEEN KONTZIENTZIAZIOA, AITORTZA ETA AUTONOMIA</b>	E.A.1. Emakumeen presentzia, genero-kontzientzia eta autoestimua sustatzea.	4
	E.A.2. Neska gazteen autoestimua, genero-kontzientzia eta ahalduntzea sustatzea.	2
	E.A.3. Egoera zaurgarrian dauden emakumeekin batera lan egitea.	1
<b>EMAKUMEEN KOLEKTIBO ANITZAK BALIOAN JARRI ETA SARETZA</b>	E.A.4. Emakumeen arteko sareak sustatzea.	2
	E.A.5. Mugimendu feminista indartzea.	2
<b>EMAKUMEON ETXEA INDARTZEA</b>	E.A.6. Astigarragako Emakumeon Etxea indartzeko proiektuan eta kudeaketan sakontzea.	9
	E.A.7. Astigarragako Emakumeon Etxea herrira gehiago zabaltzea eta ezagutaraztea.	4
		<b>24</b>

## ASTIGARRAGAKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA 2030

### 3. GIZARTE ANTOLAKETA BERDINZALE eta JASANGARRIA

HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	Ekintza kopurua
ZAINTZARAKO BEHARRAK ETA LANAK IKUSARAZI ETA DUINTZEA	G.E.1. Herriko zaintza beharrei erantzutea birbanaketaren eta berdintasunaren ikuspegitik.	4
	G.E.2. Zaintzaileen lana aitortu eta duintzea.	3
HERRIAN BERDINTASUNA GAUZATZEKO DENON ARTEAN LAN EGITEA	G.E.3. Hezkidetzeta, tratu onak eta sexualitate askea sustatzea hezkuntza formal eta informalean.	4
	G.E.4. Emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko helburua txertatzea sektore ekonomikoen bultzadarako politiketan (baserritar, merkatar, turismo...).	3
	G.E.5. Herriko kultur eta kirol jardueren bidez berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea.	4
	G.E.6 Astigarragako kaleak eta espazio publikoa emakume, haur eta zaugarri egoeran egon daitezkeen kolektiboentzako errespetuzkoa izatea.	3
HERRITARREN BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOA INDARTZEA	G.E.7. Genero-bereizkerien eta horien ondorioen inguruko gogoeta sustatzea herritarren artean.	1
	G.E.8. Genero-rol eta -estereotipoei erantzuten ez dieten pertsonen ekarpenak erakutsi eta aitortza egitea.	2
	G.E.9. Gizonen despatriarkalizazio prozesuak eta gizontasuna lantzea, gizon eta mutil gazteak inplikatu.	1
		<b>25</b>

4. INDARKERIA MATXISTATIK GABEKO HERRIA

HELURU ESTRATEGIKOAK	HELURUAK	Ekintza kopurua
<p><b>SENTSIBILIZAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA PREBENTZIOA</b></p>	<p>I.M.1. Indarkeria matxistatik gabeko herria lortzeko herritarrak sentsibilizatzea.</p>	2
	<p>I.M.2. Jai giroan eman daitezkeen indarkeria matxista eta sexuarekiko aurre egiteko ekimen iraunkorrak antolatzea.</p>	2
	<p>I.M.3. Gizonen eta mutil gazteen inplikazioa bultzatzea indarkeria matxista eta sexualari aurre egiteko, gogoeta eta ardura sustatuz.</p>	2
<p><b>ESKUHAERTZEA ETA KOORDINAZIOA AHALDUNTZETIK</b></p>	<p>I.M.4. Haur eta nerabeekin lan egiten duten agenteekin batera haur eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko protokoloa diseinatu eta garatzea.</p>	1
	<p>I.M.5. Indarkeria matxista kasuen koordinazioa hobetzea.</p>	3
	<p>I.M.6. Udal barruan sexuagatiko jazarpena eta jazarpen sexualari aurre egiteko protokoloa sortzea.</p>	1
<p><b>INDARKERIA MATXISTA BIZI IZAN DUTENEI AITORTZA ETA ERREPARAZIOA</b></p>	<p>I.M.7. Indarkeria matxista pairatu dutenen erreparazioan laguntzeko zerbitzuak eta ekimenak eskaintzea.</p>	1
	<p>I.M.8. Indarkeria matxistaren aurrean jarrera irmoa mantentzea.</p>	1
		13



## 4.3 Printzipio gidariak, bermeak eta baliabide ekonomikoak

### 4.3.1 Printzipio gidariak

- Aurrez esan bezala, Plana garatzeko printzipio gidariak EAEko Emakume eta gizonen berdintasunerako Plan Estrategikoan jasotzen direnak izango dira:


Tratu Berdintasuna	Aukera berdintasuna	Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitu, artatu eta desagertzea	Aniztasuna eta desberdintasuna errespetatzea
Genero-ikuspegia txertatzea	Ekintza positiboak	Generoaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea	Ikuspegi interseksionala
Sexu/genero identitate eta sexu orientazioaren, gorputz autonomiaren eta autodeterminazioaren garapen askea	Ordezkaritza Orekatua	Lankidetzeta eta koordinazioa	Emakumeen ahalduntzea
Gizonen inplikazioa	Parte hartzea	Berrikuntza, gardentasuna eta kontu ematea	Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea

\*Printzipio bakoitzaren definizioa EAEko Berdintasunerako Plan Estrategikoak ezartzen duen moduan ulertuko da.

\*\* Urdin argiz dauden printzipioak berriki 1/2003 Berdintasunerako Lege berrituan txertatu direnak dira.

### 4.3.2 Bermeak

- Plana garatu ahal izateko kontuan hartu beharreko **lau berme** jasotzen dira:



### 4.3.3 Aurrekontua

Plana garatzeko aurrekontuak bi zati izango ditu. Batetik, Berdintasun Arloaren aurrekontua eta, bestetik, udaleko beste arloetan garatuko diren ekintzen aurrekontua. Behen, bi urteko aurrekontuak eta aurrekontu osoak jaso dira. Honakoa, plangintzaren aurreikuspena da.

Planak iraungo dituen 7 urteetan, guztira, 2.137.294,42 € ko aurrekontua bideratzea aurreikusten da.

#### BERDINTASUN ARLOA

2024	2025-2026	2027-2028	2029-2030	GUZTIRA
177.434,06 €	381.520,12 €	376.220,12 €	357.520,12 €	1.309.194,42 €

#### GAINONTZEKO ARLOENA

Aurrekontua	Urteak				Guztira Emaidza
Saila	2024	2025-2026	2027-2028	2029-2030	
Elkarbizitza		15.000			15.000
Hezkuntza	12.800	25.600	25.600	25.600	89.600
Kirola		15.000	12.500	15.000	42.500
Liburutegia		3.000			3.000
Obrak eta zerbitzuak	40.000				40.000
Partaidetza	15.000				15.000
Tokiko Garapena	89.000	178.000	178.000	178.000	623.000
<b>Guztira Emaidza</b>	<b>156.800</b>	<b>236.600</b>	<b>216.100</b>	<b>218.600</b>	<b>828.100 €</b>

## 4.4 Kudeaketa-sistema

Plana behar den bezala garatzen dela bermatzeko jarraipen-sistema bat aurreikusi zaio planari. Batetik, planari jarraipena egiteko lau egitura aurreikusi dira, aurrerago azaltzen direnak. Bestetik, Planaren ebaluazio-sistema definitu da, planaren betetze-maila eta eragina neurtzeko, besteak beste.

### 4.4.1. Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko egiturak

Lau egitura aurreikusi dira planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko:

1. **Berdintasun Saila**
2. **Koordinazio Mahaia**
3. **Berdintasun Mahai Txikia**
4. **Udalaz gaindi, berdintasun politikak koordinatzeko guneak**

Planaren garapenaren ardura nagusia **Berdintasun Sailak izango du**, hau da, berdintasun teknikariak eta Berdintasunaren arduradun politikoak. Hau izango da planaren sustapenerako arduraduna eta jarraipen estuena egingo duena, urtean urteko kudeaketa planak eta ebaluazioak burutzearen ardura izango duena, nahiz eta beste sailek ere parte hartu.

### 1. BERDINTASUN SAILA

Berdintasunerako Plana sustatzeko, koordinatzeko eta jarraipena bermatzeko.

#### Parte-hartzaileak

- Berdintasunerako arduradun politikoa.
- Berdintasun teknikaria.

#### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurriak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Planaren garapenean inplikaturako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.
- Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea.
- Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea.
- Planaren komunikazioa egitea.
- Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea.
- Planaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea.
- Berdintasunerako Planaren segimendurako tresna elikatzea eta eguneratuta mantentzea.
- Ekitaldi bakoitza bukatzean urteko txostena osatzea.

#### Funtzionamendua

- Gune hau etengabeko koordinazioan egongo da eta behar beste bilera egingo ditu.

**Sailen arteko lana eta zeharlerroko estrategia bermatzeko ardura** izan duen gune nagusia Koordinazio Mahaia izango da. Jada beste funtzio batzuk betetzen dituen gunea da.

Udalan lau antolaketa-eremu bereizten dira: antolaketa, lurraldea, herritarrak eta ongizatea. Eremuek sailez gaindiko ikuspegia bermatzeko dute, eremu bakoitzean hainbat sailerako teknikari eta ordezkari politikoak egongo baitira. Eremuen helburua sailen arteko proiektu amankomunak gauzatea eta koordinazio eraginkorragoa lortzea da. Lau eremu horien gainetik Koordinazio Mahaia izango da, eremu bakoitzeko hainbat ordezkari tekniko eta politikoz osatutakoa.

Koordinazio Mahaian Berdintasun Sailak parte hartze egonkorrik ez badu ere, badu parte hartzeko aukera zeharlerroko izaera duen heinean. Bertan koordinatzen dira Udalan aurrera eramaten diren prozesu esanguratsuenak, beraz, Berdintasun Planak zeharlerroko ikuspegia izan dezan bermatu nahi bada, hau izango da barne-koordinaziorako foro egokiena. Hauek izango dira Koordinazio Mahaiak, Berdintasun Planari dagokionez, izango dituen egitekoak:

### 2. Koordinazio Mahaia

Berdintasunerako Planaren garapen-tekniko eta politiko koherente eta koordinatua bermatzea, eta baita Planaren jarraipena egitea ere.

#### Parte-hartzaileak

- Lau eremuetako hainbat ordezkari politiko eta tekniko
- Berdintasunerako arduradun politikoak
- Berdintasun teknikaria.

#### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurri gakoak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Udalan genero-zeharlerrotasun estrategia txertatzea errazteko komunikazioa erraztea eta ahalbidetzea.
- Ekitaldi bakoitza bukatzean urteko txostena osatu eta kontrastatzea, helburuen betetze-maila ere neurtuz.
- Ekintza puntual batzuk koordinatzea, beharrezkoa den kasuetan (Planean zehaztuta dago gune honek izango duela ekintza batzuen ardura).

#### Funtzionamendua

- Urtero, gutxienez behin, berariazko segimendua egingo dio Berdintasunerako Planaren garapenari; aurreko urteko betetze-maila aztertuz eta hurrengo urteko Kudeaketa Plana martxan jarritz.
- Horrez gain, gune honek bere ohiko dinamika izaten jarraituko du, eta bilera horietan beste gaiekin batera berdintasunarekin lotutako gaiak landuko dira, beharrezkoa balitz.

Udaleko teknikari guztiek foro honetan parte hartzen ez dutela jakinik eta zeharlerroko estrategia garatu eta Plana benetan udal-jardueran integratzeko beraien parte hartzea eta inplikazioa ere ezinbestekoak direla jakinik, ezinbestekoa izango da Koordinazio Mahaian parte hartzen duten teknikariek bere sailetan bertan hitz egindakoaren berri ematea zein gainontzeko teknikarien eta Berdintasun arloaren arteko harremana zaintzea.

Planaren garapenerako ezinbestekoa izango den beste egitura bat **Berdintasun-mahai txikia** da. Bertan herriko zenbait emakumek hartzen dute parte, eta hau da herriko emakumeek berdintasun politiketan eragiteko eta parte hartzeko izango duten bidea.

### 3. Berdintasun Mahaia Txikia

Herriko hainbat eragilek, Emakumeon Etxeko kideek eta Udalak interlokuziorako, elkarlanerako eta parte-hartzeko egitura

#### Parte-hartzaileak

- Gaztelekua
- Herriko eragileak
- Emakumeon Etxea elkarte
- Berdintasunaren arduradun politikoa
- Berdintasun teknikaria

#### Funtzioak

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko Udaleko politiken jarraipena sustatzea.
- Aukera berdintasunerako udal jarduera-planak bultzatzea eta berauen jarraipena egitea.
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko neurriak sustatzea eta formulak proposatzea programak, ekintzak eta eskaintza bereziak planteatzeko instantzia ezberdinetan, bereziki, udal mailan.
- Aisialdian neska-mutilen hezkidetzak sustatzeko proposamenak sustatzea.
- Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea emakumeen bizitza kalitatea hobetze aldera.
- Emakume guztiek udalaren gaietan parte hartu ahal izatea erraztea.
- Emakumeen egoera hobetzeko ekintza zuzenak edo zeharkakoak gauzatzen dituzten elkarte eta erakundeen arteko lankidetzak eta kooperazioa bultzatzea.

#### Funtzionamendua

- Berdintasun Mahaia Txikia bi hilero biltzen da, eta besteak beste, Planaren baitan jasotako ekintzei segimendua egingo diete, garatu ahala. Bestetik, sentsibilizazio-kanpainak elkarrekin landuko dituzte.
- Urtean behin berariaz segimendua egingo dio Planaren betetze-mailari eta hurrengo urteko Kudeaketa Plana ezagutzeari.

Horiek izango dira berariaz Planari segimendua egiteko sortuko ditugun egiturak. Horiez gain, ordea, **udalaz gaindiko berdintasun politikekin lotura mantentzeko beste hainbat gunetan** parte hartuko du Astigarragako Udalak.

### 4. Udalaz gaindiko berdintasun politiketarako egiturak

#### Guneak

- EUDELeK sustatutako Berdinsarea
- Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako Berdintasunerako Teknikarien Sarea.
- Buruntzaldeko Zaintza mahaia
- Indarkeria matxista kasuen jarraipenerako mahai interinstituzionala (osatzeke).

#### Funtzioak


- Oro har, Berdintasun Teknikaria izango da Astigarragako Udal ordezkaria gunehorietan. Baina kasu batzuetan ordezkaritza politikoak ere parte hartuko du.

#### Funtzionamendua

- Deialdiak beste administrazioek egingo dituzte, indarkeria matxistari buruzko mahaien izan ezik.
- Indarkeria matxista kasuen jarraipenerako mahaia Berdintasun Sailak deituko du, gutxienez urtean behin indarkeria matxistaren protokolo barruan parte hartzen duten agenteei. Egun, udal barruko arloak diren Udaltzainak eta Gizarte Zerbitzuek hartzen dute parte, baina helburua da interinstituzionala izatea, Osakidetza eta Ertzaintza parte hartzea gehituz.

#### 4.4.2. Jarraipen eta ebaluazio-sistema

Planaren jarraipena eta ebaluazio sistema 4 mailatan egingo da.



##### 1. Segimendua:

Batetik, **betetze maila** neurtuko da, ekintza bakoitza, urtez urte eta banan-banan bete ote den ikusiz. Horretarako ekintzen betetze maila jasotzen duen taula batean eskala honetan: *Berdea; eginda / Laranja; garatzen, baina bukatu gabe / Gorria; hasi gabe.*

##### 2. Urteko kudeaketa-plana:

Planaren jarraipena egiteko, **urteroko kudeaketa planak egingo dira**. Horrez gain, urte bakoitzaren amaieran, ekintza bakoitzaren arduradunak bete beharko du bere ekintzaren betetze-maila eta hurrengo urterako ekintza plana proposatuko du.





PROPOSAMENA	HELBURUAK	Inpaktu adierazleak	
	G.O.4. Astigarragako Udala osatzen duten pertsonak berdintasunean trebatzea, berdintasuneko trebakuntza espezifiko eskainiz.	Berdintasun gaietan inguruan antolatutako trebakuntza saio kopurua	
		Berdintasun gaien inguruan antolatutako trebakuntzen ordu kopurua	
		Berdintasun gaien inguruan antolatutako trebakuntzetan egondako partaide kopurua sexuaren arabera	
		<b>Berdintasun gaien inguruan antolatutako trebakuntzetan egondako partaideen asetasuna ikastaroarekiko</b>	
		G.O.7. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasuneko klausulak txertatzea.	Berariaz eta sakonki genero-ikuspegitik aztertu diren kontratu-publiko kopurua.
		G.O.8. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.	Urtean egin diren Genero eraginaren aurretiazko ebaluaketak egoki egin diren jasotzen duten egiaztatze-txosten kopurua
<b>UDALAREN GOBERNANTZA EREDU BERDINZALEA</b>	G.O.9. Udal-organo nahiz gainontzeko erabaki guneetan ordezkari eta partaidetza orekatua bultzatzea.	Udaleko organo kolegiatuetako partaideak sexuaren arabera eta aurreko legealdiekiko konparaketa	
	G.O.10. Udal barruko antolamendua berdinzalea izateko pausoak ematea.	<b>Udal langileei egindako galdetegiaren emaitzak, barne-planarekiko asetasunari buruzkoa</b>	
	G.O.12. Udal Politiketaren emakumeek ere parte hartzeko gardentasuna eta parte hartzerako bideak bermatzea	Udaleko aholku mahaietan emakume eta gizonen parte hartze kopurua	
		Berdintasunerako-mahaiak izan dituen bilera kopurua	
		Berdintasunerako-mahaiak izan dituen bileretako parte hartzaile kopurua	

2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

PROPOSAMENA	HELBURUAK	Inpaktu adierazleak
<b>EMAKUMEON KONTZIENTZIAZIOA, AITORTZA ETA AUTONOMIA</b>	E.A.1. Emakumeen presentzia, genero-kontzientzia eta autoestimua sustatzea.	Emakumeon Etxean antolatutako ikastaro kopurua
		Emakumeen Etxean antolatutako ikastaroen ordu kopurua

PROPOSAMENA	HELBURUAK	Inpaktu adierazleak
		Emakumeon Etxeko ikastaroetan parte hartu dutenen erabiltzaile kopuru osoa
		Emakumeon Etxeko ikastaroetan parte hartu dutenen erabiltzaileak ikastaroka
		<b>Emakumeon Etxeko ikastaroetan parte hartu dutenen asetasa (galdetegia)</b>
		Berdintasun arloak antolatutako ekimen kopurua
		Berdintasun arloak antolatutako ekimenetan partaideen kopurua sexuaren arabera
		<b>Berdintasun arloak antolatutako ekimenetan parte hartu dutenen asetasa-maila</b>
		<b>Gaztelekuko hezitzaileei egindako elkarlanaren inguruko eta emaitzen inguruko asetasa-maila (galdetegia-elkarrizketa)</b>
